

EKOSCAN EZARTZEARI ESKER LORTUTAKO INGURUMEN HOBEKUNTZAK

EKOSCAN metodologia bat da, ahalik eta hondakin, emisio eta isuri gutxien sortu eta lehengaiak, gai lagungarriak, ura eta energia ahalik eta eraginkorren erabiltzeko ekintzak ezartzeko helburua duena.

Carlos Santamaría zentroak metodologia hau aplikatu du eta, horren ondorioz, gure jardueraren ingurumen eragina murriztea ahalbidetu duten hainbat ekintza gauzatu dira.

EGINDAKO EKINTZA 2018an gauzatutako ekintzak	LORTUTAKO HOBEKUNTZA
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Pizte-banaketa berria diseinatu da administrazio gunean kontsumoa optimizatzeko asmoz . ➤ 1, 2, 3 eta 4 ikasgeletan etengailu berriak ipini dira. Arbelen gainean dauden lehenengo errenkadako argiak piztu eta itzaltzen dituztenez, etengailuek onura bikoitza dakarte: kontsumoa optimizatzen dute eta aurkezpenen bistaratzeak hobetzen dituzte. ➤ 80w-ko 31 hodi fluoreszente kendu eta beraien orde 37 w-ko LED hodiak jarri dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Liburutegian energia elektrikoaren kontsumoa % 1,51 murriztu da ➤ Energia elektrikoaren kontsumoa % 5,57 murriztu da ➤ 14844Kg murriztu da CO2-aren isuria atmosferara <p style="text-align: center;">Aurrezkia: 830,40€</p>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Aldizkarietan, paperezko formatua formatu elektronikoaz ordeztu da. ➤ Azken urte hauetan Unibertsitateko bibliotekak lan handia egin du harpidetzan dituen aldizkari bilduma arrazionalizatzeko asmoz. Esfortzua bi norabideetan egin da: batetik, formatu elektronikoa lehenetsi da; bestetik, liburutegi desberdinetan zeuden eta behar-beharrezkoak ez ziren aldizkari bikoiztuak kendu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Aldizkariak egiteko beharrezkoa den zuhaitz mozketaren % 47,04 murriztu da

<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kafe makinaren aldamenean hiru kontenedore ipini dira: organikoa, papera eta errefusa. ➤ Sarreran bi kontenedore-hirukote (papera, plastikoa eta organikoa) ipini dira. ➤ Ikasgeletan sartzeko zonaldean hiru kontenedore ipini dira: papera, plastikoa eta organikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Birziklatze-tasa: % 97,68 ➤ Plastiko hondakinak % 16,66 murriztu dira
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Bidezko merkataritzan erosketak 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Edari beroak saltzeko makinek derrigorrez bidezko merkataritzan eskuratutako kafea, tea eta txokolatea eskaintzen dute. Enpresa kontratistak nabarmenki jakitera emango du, makinan bertan jarritako oharren bidez, zein den produktuen jatorria; era berean, argi eta garbi azalduko da "bidezko merkataritza" izendapena. Zentroek eskatuta, enpresak kontainer multzoa ipini beharko du vending gune bakoitzean.
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Barne erabilerarako (Prozesuak) inprimagailua txuri-beltzean inprimatzeko konfiguratuta dago. ➤ Koloretako fotokopiak ekiditzeko asmoz, baliabide elektronikoa erabiliko dira material jakin batzuen banaketan 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ %11,42 murriztu da koloretako fotokopien kopurua barne erabilerarako inprimagailuetan ➤ Paper-kontsumoa %11,11 murriztea lortu da ➤ Laser-inprimagailuen toner kontsumoa %53,33 murriztea lortu da
<p><u>INGURUMENAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Langileei Ekoscani buruzko gutun informatiboa igorri zaie, 2018rako proposatutako hobetze helburuak eta hauek lortzeko ekintzak azalduz. Dokumentu erantsia: "2018 Plan Komunikazioa.pdf" ➤ Pantailen bidez "ENERGIA AURRESTEARI" buruzko kartelaren hedapena egin da. Dokumentu erantsia: "20190123-LiburutegiBerdea-Energia.pptx" ➤ Argiaz gain aire girotua itzaltzearen beharraz ohartarazten duen pegatina berria diseinatu da. Pegatina liburutegiko bulego eta egoitzetan ipini da. Dokumentu erantsia: "20190206-Pegatina Ekoscan-Itzali-01.pdf" ➤ Zabor-bilketa puntuen seinaleztapena berrikusi da. Puntu bakoitzaren ezaugarriak ezagutzera emateko asmoz « Gune berdea / Punto verde » bereizgarria erabiltzea erabaki da. Adibideak dokumentu erantsian: "Birziklatu-Aretoak.pdf / Birziklatu-Edariak.pdf / 	

Birziklatu-Zakarrontzia.pdf / Birziklatu-Lankideak.pdf"

- **Zabor-bilketa berezietarako materiala egin da (idazteko elementuak, tonerrak). Dokumentu erantsia: "Ekoscan-IdaztekoTresnak.pdf / Ekoscan-Tonerra.pdf"**
- **Pantaila bidez gaikako zabor-bilketari buruzko informazio hedapena egin da, "Gune berde" desberdinen ezaugarriak azalduz. Dokumentu erantsia: "20190306-GuneBerdea.pptx"**
- **Kafe makineko edalontzi eta koilaratxoan birziklapen egokia helburutzat duen hedapen-kanpaina egin da. Aurreko makinak ez bezala, berrien edalontziak kartozkoak dira eta erabiltzaileek ez dute oraindik kontainer urdinetara botatzeko ohitura hartu. Dokumentu erantsia: "Ekoscan-Kafea.pdf"**
- **UPV/EHU-k Garapen Jasangarrirako 2030 Agendari egingo dion ekarpena azaltzen duten panelak ipini dira.**

Martxoa 2019

**Errapel Ibarloza
Zuzendaria**